

GIZARTE ETA FEDE

Argi dago: fedeak bere baitan dakar trazendentziaren deia. Fedeak onartu du "Bestea", "handikaldea".

Baina gizon fededunak hemen du bizitokia, hemendarra da, nahiz eta beregan ukan aingerugogoaren printza dizdizaria. Gizona, hemengo erantzun da eta hango galdera. Izan-modu honek dakarkien ajeak nahiko argi agertzen dira egungo fededun eta marxista kritikoengan: zimentarrietatik bakoitzak onartu duenaren ondoren bestearena nahi du. Gizartegintzarako moldatu den marxismo pentsamenduak "hangotasuna" du gose; jaingogintzarako jaiio den fedeak, "hemengotasuna" du egarri. Giza-izatearen betiko sokatira, azkenean.

Honegatik, gaur egun ez da onartzen bizi-

ekintzatik apartekotasun apartenean egin nahiko litzakeen mundu sagaratu hura. Ez da onargarri sagaratu/profano haren dikotomia.

Orain —inoiz baino areago— fedea ekintzazale agertzen zaie fededunei. “Sagaratuaren” hesparrua hautsi egin nahi da, erlijiozikizuna bizitza osoaren barnetik bizi da. Fedea dinamikoki agertzen da bereziki erlijiodunen kontzientzietan. Fedea, bizieraren aldatzaile da.

Fedea, eginkizun gertatzen da eta gizonen serbitzu bide: besteentzakotasuna ezartzen dio fedea gizonari, salbabidea eskaintzen dion bitartean.

Fedearen gizarte-ekintza behar da. Iraultza?

J. I.